



**DIRU-LAGUNTZEN PLAN
ESTRATEGIKOA 2020-2023**

1. GEHIGARRIA

2020/06/02ko Udalbatza

TOKI MERKATARITZA

1.- Dirulaguntza, Arrasateko herritarrei udalerriko establezimendu eta zerbitzuetan gastatzeko bonoen bitartez.

Xedea: Arrasateko establezimenduetan kontsumoa sustatzea eta herritarrak laguntzea udalerrian kontsumitu dezaten.

Udalak zer lortu nahi duen:

Udalerriko ekonomiari bultzada ematea. Covid-19ak sortutako egoeratik irteteko hasierako ahalegin horretan, herritarrak eta bertako establezimenduak laguntzea.

Kontsumoa sustatzea herriko establezimenduetan (dendetan, zerbitzuetan, zein tailer txikietan).

Norentzat:

Arrasaten erroldatutako familia unitate edo eta etxebizitza guztientzako izango da eta gastatu ahal izango da Arrasateko txikizkako edozein establezimendutan (salbuespen batzuekin).

Ematekoaren modalitatea: zuzeneko dirulaguntza.

Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa: 300.000 euro, 1-07-00-480-431-01-00 Merkataritza diru laguntzak-bonoak” kontu sailaren kontura.

**PLAN ESTRATÉGICO DE
SUBVENCIONES 2020-2023**

ADENDA Nº 1

Pleno de 02/06/2020

COMERCIO LOCAL

1.- Subvención dirigida la población de Arrasate a través de bonos para realizar gastos en establecimientos y servicios.

Objeto: Fomento del consumo en establecimientos de Arrasate y ayuda a la población de Arrasate para que consuma en el municipio.

Efectos pretendidos:

- Impulso a la economía del municipio. Ayudar a la ciudadanía y a los establecimientos de Arrasate en el intento inicial de salida de la situación generada por el Covid-19.

- Fomento del consumo en los establecimientos locales (tanto en tiendas, servicios como en pequeños talleres).

Destinatarios:

- Será destinada a todas las unidades familiares o/y viviendas que estén empadronadas en Arrasate y podrán realizar gastos en cualquier establecimiento al por menor (con algunas excepciones).

Modalidad de Concesión: subvención directa.

Importe y aplicación presupuestaria: 300.000 euros, a cargo de la partida “1-07-00-480-431-01-00 Subvenciones al comercio-bonos”.



2.- “Ibai-Arte Merkataritza Elkartea”ri laguntza ematea Arrasateko kaleak girotu eta bizitzaz betetzeko ekintzak antolatzeko.

Xedea: Herriko ekonomia suspertzeko, kaleko giroa piztea, herritarrak kalera irteteko nahia asetzea eta kaleak bizitzaz betetzea.

Udalak zer lortu nahi duen:

- Udalerriko ekonomiari bultzada ematea. Covid-19ak sortutako egoeratik irteteko hasierako ahalegin horretan, herritarrak animatzea kalera irten daitezen.

- Kaleko giroa dinamizatuz, familiek eta norbanakoek kale atseginak izatea, eta honen eraginez bertako establezimenduetan kontsumoa sustatzea.

- Beste herri edo hiri batzuetara egon daitekeen erosketa-ihesa saihestea eta bertakoa sustatzea.

- Jarrera positiboa eta baikorra transmititzea.

Norentzat:

Dirulaguntza zuzenduta dago Ibai-Arte Merkataritza Elkarteari.

Onuradunak izango dira Arrasateko herritar eta establezimendu guztiak.

Ematekoaren modalitatea: zuzeneko dirulaguntza.

Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa: 25.000 euro, “1-07-00-481-431-01-00 Merkataritza diru laguntzak” kontu sailaren kontura.

2.- Concesión de ayuda a la asociación de comerciantes Ibai-Arte para la organización de actividades con el objeto de ambientar las calles y llenarlas de vida.

Objeto: Con el objeto de promocionar la economía local, incentivar el ambiente de la calle, satisfacer las ganas de la ciudadanía para salir a la calle y llenar de vida la calles.

Efectos pretendidos:

- Impulso a la economía del municipio. Animar a la población a que salga a las calles en el intento inicial de salida de la situación generada por el Covid-19.

- Dinamizando el ambiente de las calles, que las familias e individuos tengan unas calles agradables, y con su efecto el fomento del consumo en los establecimientos locales.

- Evitar la posible fuga de compras a otras poblaciones o ciudades, y fomentar el comercio local.

- Transmitir una actitud positiva y optimista.

Destinatarios:

La subvención está dirigida a la asociación de comerciantes de Ibai-Arte.

Las beneficiarias serán toda la ciudadanía y todos los establecimientos de Arrasate.

Modalidad de Concesión: subvención directa.

Importe y aplicación presupuestaria: 25.000 euros, a cargo de la partida “1-07-00-481-431-01-00 Subvenciones al comercio”.



3.- Dirulaguntza, COVID 19ko alarma egoeran itxita egon diren Arrasateko establezimenduentzat, pandemiagatik beharrezkoak diren higiene neurri bereziak ezartzeko gastu eta inbertsioak finantzatzeko.

Xedea:

Ezohiko gastuak eta inbertsioak finantzatzea publikoa artatzen duten herriko establezimenduei, COVID 19 pandemiagatik beharrezkoak diren higiene neurri gehigarriak ezartzeko.

Udalak zer lortu nahi duen:

- COVID 19 alarma egoeratik itxita egon diren herriko establezimenduek jarduera berriro abiatu dezaten laguntzea.
- Alarma egoeran itxita egon diren herriko establezimenduei arintzea COVID 19 pandemiagatik beharrezkoak diren ezohiko higiene neurriak ezartzeko gastuen zama.
- Bezeroen konfiantza berreskuratzea, establezimenduetara berriro lasai joan daitezen, COVID 19 pandemiak sortutako beldurrak uxatuta.

Norentzat:

Arrasateko establezimenduak, publikoa artatzen dutenak, eta COVID 19 alarma egoeran itxita edo ia itxita egon direnak.

Ematekoaren modalitatea:

Norgehiagokako modalitatea.

3.- Subvención dirigida a los establecimientos de Arrasate que han permanecido cerrados durante el estado de alarma COVID 19, para financiar gastos e inversiones relacionados con las nuevas medidas de higiene requeridas a causa de la pandemia.

Objeto:

Financiar a los establecimientos del municipio con atención al público gastos e inversiones extraordinarios necesarios para implantar las nuevas medidas de higiene requeridas por la pandemia COVID 19.

Efectos pretendidos:

- Impulsar la reapertura de establecimientos que han permanecido cerrados durante el estado de alarma COVID 19.
- Aliviar a los establecimientos que han permanecido cerrados durante el estado de alarma los gastos relacionados con la implantación de las medidas extraordinarias de higiene necesarias a causa de la pandemia COVID 19.
- Recuperar la confianza de los clientes para volver a acudir con tranquilidad a los establecimientos, disipando los recelos generados por la pandemia COVID 19.

Destinatarios:

Establecimientos de Arrasate con atención al público que hayan permanecido cerrados total o parcialmente durante el estado de alarma COVID 19.

Modalidad de Concesión:

Concurrencia competitiva.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa:
50.000 euro, “1.0700.480.430.00.00 -
Merkataritza diru laguntzak-COVID 19
higiene neurriak” kontu sailaren kontura.

Importe y aplicación presupuestaria: 50.000
euros, a cargo de la partida
“1.0700.480.430.00.00 - Subvenciones al
comercio-medidas de higiene COVID 19”.